

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak uste du Mediterraneo-Kantauriko korridoreak Pirinio arteko komunikazioak hobetuko dituela

Herri Lan eta Garraioetako zuzendari nagusiek Toulousen azaldu dute, korridoreak Nafarroarentzat zer ondorio on duen eta haren terminal intermodalek Tuteran eta Noain-Iruñean zer ondorio on dituzten

Miércoles, 26 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak Toulouse-n gaur egin den Pirinioetako Lan Erkidegaren bileran azpimarratu du Mediterraneo-Kantauri korridorean sartzeak zer garrantzi eta interes duen Pirinio arteko komunikazioak hobetzeko. Hala adierazi dute Herri Lanetako zuzendari nagusi Camino Bonafaux Martínez-ek eta baita Garraioetako zuzendari nagusi Berta Miranda Ordobás-ek, gaur Pirinioetako Komunikazioei buruzko V. Konferentzian egin dituzten agerraldietan, Pirinioetako Lan Erkidegoak burutzen dituen saioen barnean.



Berta Miranda (erdian) Pirinioetako Komunikazioei buruzko Konferentzian egindako agerraldian.

Jakinekoa denez, bihar, osteguna, hiri frantses horretan Pirinioetako Lan Erkidegoaren 29. osoko bilkura egingo da, eta bertan Nafarroako Gobernuaren Lehendakari Yolanda Barcina Angulok buruzagitza hartuko duela aurreikusita dago.

AHko Nafarroako korridorearen garrantzi estrategikoa

Camino Bonafaux-ek adierazi duenez, Sustapen Ministerioak proposatuta eta Europako Batzordeak Garraioaren Europa arteko Sareei buruz duela gutxi hartutako erabakiaren barnean bermatuta, Nafarroa Kantauri-Mediterraneoko korridorean sartzearekin abiadura handiko Nafarroako korridoreak behin betiko bultzada jaso du, eta hortik ondorio oso onak aterako dira Nafarroaren etorkizunerako.

Era horretan, Herri Lanetako zuzendari nagusiak azaldu duenez, egoera pribilegiatuan geratzen da maila nazionalean nahiz nazioarteko mailan; izan ere, kontuan hartu behar da bereziki merkantziatarako prestazio handiko korridore bat dela, baina baita bidaiarientzat ere. Hala, Nafarroa puntu estrategiko batean geratzen da maila nazionalean eta nazioarteko mailan merkantzien jarioari eusten dioten ardatzen artean.

Gainera, azpimarratu du, trena etorkizuneko motor nagusietako bat dela, eta merkantzien tren bidezko garraioa oraindik ustiatzeko dagoela Espainian. Herrialde honetan merkantzien garraioa % 3a da; Europar Batasunean, berriz, % 15a. Hori dela eta, korridorea pizgarri izango da jada badauden inbertsioak finkatzeko eta beste batzuk bereganatzeko, eta horren ondorioz enplegua sortuko da.

Azkenik, jarraitu du, Nafarroan barneko nahiz kanpoko turismoa (Europako gainerako herrialdeetatik) handitzeko aurreikuspena dago.

Terminal intermodalak Tuteran eta Noain-Iruñean

Bestalde, Garraioetako zuzendari nagusi Berta Mirandak azpimarratu duenez, merkantzien garraiorako egun errepidearekiko dagoen menpekotasunak lehiakortasunean eragin txarra du, esportazio eta inportazioetan bereziki. Horregatik, Abiadura Handiko Trena eraikitzeak lehiakortasuna hobetzea ekarriko dio Nafarroari, merkantzien errepideko garraioaren aurrean (ibilgailuz beteta dauden errepideak).

Gainera, erantsi du, abiadura handiko trena garraio bide modernoa eta eraginkorra da bidaiari nahiz merkantzientzat, eta iraunkorra; izan ere, garbiagoa da ingurumenean duen eraginari dagokionez, elektrizitatea bakarrik erabiltzen baitu (gero eta gehiago energia berriztagarriekin sortzen dena), eta trenek balaztei eragitean ere elektrizitatea sarera itzultzen duten sorgailu gisa funtzionatzen dute.

Berta Mirandak nabarmendu du, halaber, Nafarroako tren-korridorea Kantauri-Mediterraneoko ardatzean sartzeari esker, eta bide-sarearekin elkar lotuta, beste garapen logistiko batzuk egingo direla Tuteran eta Noain-Iruñeko nodo logistikoetan aurreikusitako bi terminal intermodaletatik abiatuta bereziki. Ez da ahaztu behar, Kantauri-Mediterraneoko ardatzak (Valentzia, Aragoi, Errioxa, Nafarroa, EAE eta Kantabriako autonomia erkidegoak zeharkatzen ditu) bertan dauden portuak, ekoizpen-zentroak eta biztanleak lotzeaz gain, Mediterraneo, Atlantikoko korridoreekin eta korridore Zentralarekin elkartzen dituela ere; aldi berean, mugaren bidez merkantzien Europako korridoreekin erlazionatzen da.

Horregatik, Berta Mirandak adierazi duenez, Abiadura Handiko Nafarroako Korridorea eraikitzeari esker, "beste garapen logistiko batzuk sustatu ahal izango dira, Nafarroaren barnean garraio-sistema bat antolatuz sistema nazional eta europarrarekin lerrokatuta; era horretan, gure ekonomiak eraginkortasun eta iraunkortasun handiagoa izango du".